

**2008KO APIRILAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita laua

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Malu Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA.

2008ko apirilaren 3ko aktaren berri eman ondoren, Julio Herreros PPko ordezkariak izan ezik gainerako ordezkariak akta onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako. Julio Herreros jaunak akta ez du onartu bertan ilegalizatuta dagoen plataformak parte hartu duelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 26 Areako (26 A) Arau Subsidiarioen aldaketaren puntualari behin-behineko onespena emateko proposamena.

Alkate jaunak Aitor Aldasoro hirigintza batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA

“Gaia: 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin behineko onespena ematea.

2008ko otsailaren 28ko datarekin egindako Udalbatza Osoak, hasierako onespena eman zion Arau Subsidiarioen egokitze eta berrikuntzaren Testu Bateratuaren 26 Areako aldaketa puntualari. Espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epean, 2008ko martxoaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2008ko otsailaren 29ko Berrian eta 2008ko martxoaren 1eko Diario Vascon hurrenez hurren.

Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90,6 artikularen arabera, aipatutako Arau Subsidiarioen aldaketari behin behineko onespena ematea dagokio.

Beraz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamen erabakia egiten dio:

Lehenik. 26 Areako Arau Subsidiarioen aldaketari behin behineko onespena ematea, hasierako onespenerikiko aldaketarik gabe.

Bigarren. Erabaki honen berri, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen berri ematea eta dokumentu hau bidaltzea, txostena eman dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- LAGUNTZAK EMATEKO BAREMOA. Udalaren zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko baremoa onartzeari buruzko proposamena.

Alkate jaunak Malu Vallés gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-Ongizate batzordeak 2008ko martxoaren 31n egindako bileran, Udaleko zerbitzuen erabilpenagatik tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:

.- 2007. urtean ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik eta Udal Kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreren baremoa ondorengo izatea:

Hileko 493,22 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.
Hileko 493,23 eurotik 674,57 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.
Hileko 674,58 eurotik 855,90 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.

Aipatutako proposamenak Udalbatzak onartzea eskatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

3.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2008ko apirilaren 1etik 2008ko apirilaren 21era Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2008ko apirilaren 1etik 2008ko apirilaren 21era arte emandako ebazpenak.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ALKATETZAREN EBAZPENAK

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) ondorengo galdetu du: “en la relación de resoluciones de Alcaldía y concretamente en lo que se refiere a consultas urbanísticas, sobre la posibilidad del uso de pensión en el local sito en Mariarats, utilizado para exposición y venta de muebles de cocina, me gustaría saber que respuesta se ha dado porque como había habido otras dos consultas respecto a lo que en su día aprobamos para modificar el uso de los locales comerciales y pasarlos a vivienda, me gustaría saber que respuesta se ha dado porque las anteriores pasaron por comisión y ésta no. No sé qué criterio hay, es decir, si algunas consultas van a pasar por la comisión y otras no. En este caso nos gustaría saber cuál ha sido la respuesta.”

Alkate jaunak (EAJ): “No puedo decirte. Tendré que mirar la documentación. Pienso que los informes vinieron de urbanismo y en base a ellos firmaría. Ya lo consultaré.”

VIVIENDAS VPO

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): Me gustaría saber si el Ayuntamiento sabe realmente cuando va a empezar la ejecución de las viviendas de protección oficial de Dulce M^a Loinatz, 10, 11 y 12. Ayer pasé y sólo había tres topógrafos. No hay atisbo de movimiento de tierras, ni máquinas, nada. Va a hacer un año que hicimos el sorteo. Teníamos el inconveniente del traslado de la torre de Iberdrola, pero hace casi un mes se quitó. Quisiera una respuesta para que podamos decir a los vecinos cuando van a comenzar las obras.”

Alkate jaunak (EAJ): “Los topógrafos están delimitando el área y ahora tienen que hacer la tirada de cuerdas, y van a empezar a excavar y a poner las grúas. El día que entren las excavadoras mandaré a los adjudicatarios una carta diciéndoles con quien tienen que relacionarse en adelante para el contrato y demás temas que les puedan interesar.”

ESPACIO FRENTE A LO QUE FUE LA CASA ERREMENTARI

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “ A la altura de donde está el cajero de Kutxa, hemos observado que desde hace meses las baldosas están rotas. Queremos saber si el Ayuntamiento tiene algún encargado para dar

cuenta de los desperfectos que existen en la vía pública y puedan llegar a solucionarse o tenemos que ir con un spray para llamar la atención, ya que ese tramo lleva más de seis meses en ese estado y puede suceder que alguien se caiga.”

Alkate jaunak (EAJ): “Tienes razón. Hoy por la mañana en servicios se ha tomado la decisión de repararlo ya.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Fernando perdona, antes no he escuchado la pregunta que has hecho. Lo único que hicieron fue preguntar que tendrían que hacer para poder desarrollar una actividad. No han hecho una petición concreta. Para contestar a la consulta hizo un informe el arquitecto municipal dando cuenta de los mínimos que tendría que cumplir. Otra cosa es que decidan ponerlo o no.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “La cuestión está en que otras consultas han pasado por la comisión y aquí no. Queríamos saber si el procedimiento va a ser el de dictar la resolución de alcaldía y luego nosotros miramos las resoluciones, o va a ser otro.”

Alkate jaunak (EAJ): “La diferencia está en si la consulta es el conocer cómo esta en las NN SS o si de la consulta se deriva alguna interpretación de la norma u ordenanza.”

HORARIOS Y DÍAS DE COMISIONES

Josi Insausti jaunak (EA): “Ultimamente se están produciendo cambios en los horarios y días de las comisiones, y además se producen los cambios sin previa consulta. Ello afecta directamente para la participación en las citadas comisiones. Todos admitimos en su momento que las comisiones se celebraran a la mañana y pedimos que se elaborara un calendario de comisiones para cuadrar agendas, y nos encontramos que de la noche a la mañana se van cambiando. Pediría que, por favor, antes de cualquier cambio se notifique y se consulten la posibilidad de modificación.

En esta semana se ha constituido una mesa de contratación para adjudicar la redacción del plan especial de revitalización comercial, y no hemos podido participar por cuestiones de horario, incluso algunas personas que han tomado parte, tampoco han podido acudir todos los días. No sé con qué criterio se va a hacer la contratación.”

ILUMINACIÓN DEL MUNICIPIO

Josi Insausti jaunak (EA): “Existe un programa informático que determina el encendido y apagado de la iluminación, la durabilidad, etc. pero algo falla, o bien el programa informático o el seguimiento, ya que nos encontramos que hay zonas que llevan mucho tiempo con las farolas fundidas o con una iluminación deficiente. Rogaríamos que se hiciera un especial seguimiento para saber que falla y donde y poder mejorarlo.

LIMPIEZA VIARIA

Josi Insausti jaunak (EA): “Se modificó el contrato ampliando el servicio, pero lo cierto es que no se está ejecutando como debiera, ya que hay zonas en el centro en las que no se está efectuado el riego diario, tal y como está establecido. Pediríamos que desde el aparte técnica se tenga en cuenta y se mejore.”

Alkate jaunak (EAJ): “ El calendario anual de reuniones está establecido y se avisa con antelación. En Hacienda tenemos previsto los lunes, pero para la contratación de la redacción del PERCO, además del informe elaborado por la Secretaria, la Interventora y la técnica de comercio del Gobierno vasco, en el pliego de condiciones aprobado se establecía como criterio de adjudicación, la defensa oral, y para ello se ha precisado de más tiempo. Esa ha sido la razón del cambio, pero no obstante tomamos nota.

Respecto de los temas referentes a servicios, quiero recordar que hay una comisión en donde se analizan y debaten los temas, y pediría que se acudiera a la misma para plantear todo que sea objeto de la misma.

ERAUSKIN AUZOKO OBRAK

EAEko ordezkariak galdetu du ea apirilaren 18ko GAOn Erauskin auzoan obrak egiteari buruz argitaratu den iragarkiak, abiadura handiko trenarekin zer ikusia duen.

Alkate jaunak (EAJ): “Ez. Udalak auzo horretan duen pabiloian obrak egin behar dira eta obra horiek errekaren inguruan egin behar direnez, baimena eskatzea beharrezkoa da.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta hogeian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.